

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

“Shakespeare-ren emakumeak” izeneko obrak irekiko du Erriberriko Antzerki Klasikoaren Jaialdia ostiral honetan

Uztailaren 15etik 31ra burutuko den programa Sanchez de Muniain kontseilariak inauguratuko du

Viernes, 15 de julio de 2011

Rafel Alvarez, El Brujo-ren "Shakespeare-ren emakumeak" izeneko ikuskizunak emango dio hasiera uztailaren 15etik 31ra burutuko den [Erriberriko Antzerki Klasikoaren hamabigarren edizioari](#).

Urrezko Mendeko obretan oinarritutako programa gaur gauean inauguratuko du Gobernuaren eledun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuko Juan Luis Sanchez de Munianek; Nafarroako Gobernuaren ordezkari Elma Saizek eta Erriberriko alkate Francisco Legazek. Ekitaldia Nafarroako Erregeen Jauregian izango da.

Irekiera-ekitaldia amaituta, lehen obra antzeztuko da, eta larunbatean, hilak 16, ere eszenaratuko da. Antzezpenak 22:30ean izango dira Cava-n.

Muntaia Shakespeare-ek sortutako pertsonaiei zuzenduta dago: *Catalina* ("Otzandutako piztia"), *Rosalinda* ("Nahi duzuen bezala"), *Beatriz* ("Urruneko intxaurrak zarata asko") eta *Julieta*. Bertan, El Brujo-k emakumeari eta antzerkigile ingelesari omenaldi berezi bat egiten die, Harold Bloom kritikati iparamerikarraren testuetatik abiatuta.

Obra gaur goizean aurkeztu dute: Nafarroako Gobernuaren Kultura Ekintza Ataleko zuzendari Dori Lopezek; Jaialdiaren zuzendari artistiko Alex Ruizek; eta ikuskizunaren zuzendari Rafael Alvarezek, Nafarroako Museoan egin den ekitaldian.

45 antzezlan barnean hartzen dituen Jaialdiaren programa Nafarroako Gobernuak antolatu du. Gainera, Kultura Ministerioa, Erriberriko Udala eta Nafarroako Autopistak erakundeen babesa dute, eta Espainiako Kultura Ekintza, Erriberriko Errege Jauregia eta Nafarroako Jatorrizko Izendapena Arautzeko Kontseiluaren laguntza jaso dute.